

MERKATUKO AURRETIAZKO KONTSULTA, SPRI TALDEAREN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO KANPO ZERBITZUAK ETA OSASUNA ZAINTEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEAREKIN LOTUTAKO ALDERDIEI BURUZKOA

SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia (aurrerantzean, “**SPRI**”) zuzenbide pribatu erakunde publiko bat da eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarrtasun Sailari atxikita dago. Agentziaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ekonomiaren sustapenerako politikaren tresna gisa jardutea.

Merkatuko aurretiazko kontsulta (aurrerantzean, “**Kontsulta**” edo “**MAK**”) honen helburua da merkatuari buruzko informazioa jasotzea, agiriak zehazteko behar besteko ezagutza nahikoak eskuratzeko. Izan ere, laneko arriskuaren prebentziorako eta osasuna zaintzeko zerbitzuak kontratatuko dira SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziarentzako zein entitatearen menpe dauden sozietateentzako (aurrerantzean, “**SPRI taldea**”), atxikitzen den dokumentazioaren arabera.

1.- AURREKARIAK

MAK hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 115. artikuluan xedatutakoaren arabera egiten da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/21 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, **SPKL**).

Halaber, horren emaitza lizitazioaren oinarritzko aurrekontua zehazteko eta merkatuko prezioetara egokitzeko erabiliko da. Horrela, behar bezala betetzen da SPKLren 100.2 artikuluan ezarritakoa, honako hau ezartzen baitu:

“(…)Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua egiteko orduan, kontratazio-organoek zainduko dute aurrekontu hori merkatuko prezioetara egokitu dadila. Horretarako, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua xehakatu egingo da, hura kalkulatzeko zuzeneko eta zeharkako kostuak eta izan daitezkeen beste gastu batzuk adieraziz administrazio-klausula partikularren agirian edo lizitazioa arautzen duen agirian. Kontratu egikaritzeko enplegatutako pertsonen ordainsarien kostua kontratuaren guztizko prezioan sartuta dagoen kontratuetan, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua xehakaturik emango da, erreferentziako lan-hitzarmenaren arabera zenbatetsitako ordainsari-kostuen generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera (...)”.

2.- XEDEA

MAK honen helburua da SPRI Taldearen laneko arriskuaren prebentziorako kanpo zerbitzuak (laneko segurtasuna, industria-higienea, ergonomia-psikosoziologia aplikatua eta laneko medikuntza

espezialitateetan) eta osasuna zaintzeko zerbitzuak emateko interesa duten eta aktibo dauden eragile ekonomiko guztien proposamen ekonomikoak jasotzea.

MAKa adierazitako zerbitzuen lizitazioa modu egokian prestatzeko egiteaz gain, eragileei planei eta lizitazio-prozesuan lehiatzeko eskakizunei buruzko informazioa emateko egin da.

MAK honen helburua ez da amaierako proposamena jasotzea, hori ondoren lizitazio-prozesuaren helburua izango baita. Halaber, MAK hau ez dago ezekin kontraturen barruan eta ez dio SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari kontratatze-konpromisorik sortzen.

Dokumentu honen I. eranskinean jasota dagoen zerbitzuei buruzko informazio tekniko orientabide gisa ematen da, eta behin betiko kontratazio-espeditentean argitaratuko den informazioaren sinopsia besterik ez da izango. Behin betiko kontratazio-espeditentea SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Kontratazailearen Profilean argitaratuko da, Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman.

3.- KONTSULTARI LOTUTAKO KONTRATU MOTA, IRAUPENA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Lizitatuko diren zerbitzuak honako lote hauetan banatu dira:

- 1. lotea: laneko arriskuen prebentziorako zerbitzua (laneko segurtasuna, industria-higienea, ergonomia-psikosoziologia aplikatua eta laneko medikuntza espezialitateetan)
- 2. lotea: osasuna zaintzeko zerbitzua.

Zerbitzuen iraupen-epea urtebetekoa (1) izango da, eta SPRIk eskatuta hiru (3) aldiz luzatu ahal izango da, urtebetez (1) aldi bakoitzean.

Lizitatuak lote guztietara aurkeztu daitezke eta lote baten edo gehiagoren adjudikaziodun izan ahalko dira, eta ez dira eskaintza integratzaileak baimenduko.

Prezioa ordainketa partzialen bidez ordainduko da, eta ordainketa hileroko egingo da, dagokion faktura jaso eta SPRIko kontratuaren arduradunak ikus-onetsi ondoren.

4.- PARTE HARTZAILEAK

Deialdi hau irekia da eta interesa duten honako eragile ekonomiko hauei zuzenduta dago: Laneko arriskuen prebentzioaren eta/edo osasuna zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituen eragile ekonomikoak (pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, modu indibidualean edo aldi baterako elkartuta), proposamena egin duen organoarekin lankidetzan aritzeko asmoa badute, merkatuaren egoerari buruzko informazioa emanez, kontsulta honen xedearekin lotutako

konponbideei dagokienez, eta, hala badagokio, planteatutako ezaugarri teknikoen definizioa eta zerbitzuen kostuak zehazten dituzten proposamenak aurkeztuz.

5.- MAKeen PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

5.1.- Proposamenak aurkeztea:

Proposamenak aurkezteko, parte-hartzaileek honako jarraibide hauek izango dituzte:

- Parte-hartzaileek erantzuna emateko deialdi honen jarraian dagoen inprimakia bete beharko dute, eta horrek, aldi berean, **I. eranskinean** zerrendatzen diren behar espezifikoak jasoko ditu: [esteka](#)
- Proposamenak edozein unean aurkeztu ahal izango dira, horretarako ezarritako epean.
- Kontsultari erantzuteko bertsio desberdinak bidali ahal izango dira identifikazio-akronimo bera erabilia, baina bidaltzen den erantzun bakoitzak aurrekoa ordeztuko du. Hortaz, erantzun berrian aurrekoetan baliozkotzat jo den informazio guztia gehitu beharko da.
- Proposamen eta/edo erantzun bat pertsona- edo entitate-talde batek bidaltzen badu, helbide elektroniko bakar bat erabili beharko da erantzuna identifikatzeko eta parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko.
- Ez dago mugarik proposamenen hedadurari dagokionez.
- Kontsultak ez du izaera loteslerik SPRIrekiko, eta ez du SPRI behartzen deialdi honetan aurkeztutako erantzunak finantzatzera edo onartzera.
- Kontsultan parte hartzeagatik sortzen diren kostuak parte-hartzaileek ordainduko dituzte.
- Halaber, MAK honetan parte hartzeak ez du mugatuko deitu daitezkeen ondorengo lizitazioetan parte hartzea.

5.2.- MAKaren epea eta eguneraketak:

Proposamenak aurkezteko epea deialdi hau SPRI- enpresen garapenerako euskal agentziaren kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2025eko ekainaren 6an bukatuko da. Hala ere, egun hori baino lehen SPRI harremanetan jar daiteke parte-hartzaileekin datuak eguneratzeko edo aurretiaz informazioa eskatzeko.

SPRIk deialdiaren beharrei lotutako eguneraketak argitaratu ditzake eta horretarako deialdiaren I. eranskinaren aldaketa argitaratuko du. Hortaz, merkatuko kontsulta egiteko prozesuaren ondorioz sortutako behar berriak gehitu eta zeuden beharrak birformulatu ahal izango ditu.

Eguneraketen berri emango zaie momentu horretara arte parte hartu duten guztiei, inprimakian zehaztutako helbide elektronikoaren bidez. Halaber, SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Kontratzailearen Profilean argitaratuko dira.

5.3.- Galdera-blokeak:

Galdetegiak lau (4) bloke hauek izango ditu:

- 1. blokea: parte-hartzaile bakoitza identifikatzea.
- 2. blokea: parte hartzeko baldintza orokorrak.
- 3. blokea: kanpoko laneko arriskuen prebentzio zerbitzua.
- 4. blokea: osasuna zaintzeko zerbitzua.

5.4.- Hizkuntza:

Proposamenak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira. Beraz, ez da beste hizkuntza batean egindako proposamenik onartuko. Halaber, Kontsulta egiteko prozesuan parte-hartzaileek planteatzen dituzten galderei erantzuteko komunikazioa EAeko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango da.

6.- GARDENTASUN, TRATU-BERDINTASUN ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN PRINTZIPIOAK APLIKATZEA

MAKean parte hartzeak, parte-hartzaileekin izandako kontaktuek edo informazio-trukeek ezin izango dute eragin gardentasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak urratzea. Halaber, ezin izango dute lehia murriztu edo mugatu eta ezingo dute abantaila edo eskubide eskusiborik eskaini.

MAKean parte hartzeak ez du eragingo deialdiaren xederi lotuta aurrerago egin daitezkeen kontratuak adjudikatzeko eskubide edo lehenespenik.

Horretarako, SPRIk adierazitako printzipioak mantentzen direla bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu, deialdia gauzatu bitartean zein ondorengo kontratazio-prozeduran.

Egindako kontsultaren ostean, ezin izango da parte-hartzaileetako baten ezaugarri teknikoetara soilik egokitzen den kontratu-xede zehatz eta mugatu bat zehaztu. Azterlan eta kontsulten ondorioetan, hala badagokio, ezaugarri generikoak, eskakizun orokorrak edo formula abstraktuak gehitu beharko dira, interes publikoak hobeto asetzea bermatzeko, eta egindako kontsultek ezin izango diete inola ere abantailarik ekarri, kontratuen adjudikazioari dagokionez, kontsulta horietan parte hartzen dutenei.

Halaber, MAKean jasotako emaitzak jarduketan txosten batean jasoko dira, eta bertan egindako azterlanak eta egiteak, kontsultatutako entitateak, formulatutako galderak eta lortutako erantzunak jasoko dira. Txosten hori arrazoitua izango da, kontratazio-espediten parte izango da eta

espedienteko agirien betebeharrak errespetatu behar dituzte. Halaber, SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaaren Kontratzailearen Profileen argitaratu behar da, SPKLren 115. artikuluan xedatutakoa jarraituz.

Orokorrean, agiriak egiterakoan kontratazio-organoak egindako kontsulten emaitzak kontuan hartu behar dituzte. Hala ez izatekotan, arrazoiak jasoko behar dituzte jarduketan txostenean.

7.- MAKaren GARDENTASUNA

Prozesuaren gardentasuna eta ondoren egingo den lizitazio-prozedura prestatzeko informazioa eskuragarri dagoela bermatzeko, MAKean parte hartzeko ezinbestekoa izango da eskaintako informazioa eguneratuta izatea onartzea.

MAKeko parte-hartzaileek emandako informazioei SPRIk emango dien erabilera ondoren gerta litekeen kontratazio-prozeduraren preskripzio teknikoak eta lizitazio-aurrekontua definitzera mugatuko da soilik.

Kontsulta-prozesuan zehar, SPRIk, edonola ere, ezin izango dio ezein parte-hartzaileari gainerako parte-hartzaileek proposatutako soluzioen berri eman.

8.- DATU PERTSONALAK BABESTEAK

Kontsulten xede diren edo MAKean parte hartzen duten eragile ekonomikoen eta/edo haien ordezkarien eta harremanetarako pertsonen datu pertsonalak SPRIk tratamenduaren arduradun gisa tratatuko ditu, MAKaren xede den lizitazioa behar bezala prestatzeko, kontratazio publikoaren arloan aplikatu beharreko araudian (SPKL) horri buruz ezarritako legezko betebeharrak oinarri hartuta.

Aipatutako datu pertsonalak SPRIk bete beharreko legezko betebeharren esparruan komunikatu behar diren entitate, organismo publiko edo hirugarrenei, SPKLAN aurreikusitakoaren arabera aplikatu behar diren publikitate-betebeharrak barne. Hortaz, jakinarazten dugu datu pertsonalak ematea eta aipatutako terminoetan datu horiek jakinaraztea beharrezkoa dela. Hortaz, datu horiek ez ematekotan eta/edo helaraztekotan, eragile ekonomikoek ezin izango dute MAKan parte hartu.

Tratamenduaren xede diren datuak MAKa modu egokian kudeatzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko dira, eta SPRIK bere legezko betebeharrak betetzeko behar duen denbora gehigarrian.

SPRIk Datuak Babesteko ordezkari bat izendatu du, eta interesdunak harremanetan jar daitezke dpo@spri.eus helbide elektronikoaren bidez.

Edonola ere, interesdunek eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, eta hala badagokio, tratamenduaren aurka egiteko eskatzeko, idatzizko jakinarazpena igorrita lop@spri.eus helbidera; eta (ii) erreklamazio bat

aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan (www.avpd.eus), bereziki beren eskubideak baliatzean gogobetutzerik lortu ez badute.

Bilbon, 2025eko apirilaren 2an

Jon Ansoleaga Ugarte jn
SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia

I. ERANSKINA

ZERBITZUEN INFORMAZIO TEKNIKOA

Jarraian, lizitatu nahi diren zerbitzuen ezaugarri teknikoak zehazten dira, honako lote hauetan bereizita:

1. lotea: Laneko arriskuen prebentziorako kanpo zerbitzua (laneko segurtasuna, higiene industriala, ergonomia-psikosoziologia aplikatua eta laneko medikuntza):

1.1.- Aholkularitza eta laguntza teknikoa:

Laneko arriskuen prebentzioko edo zerbitzua jasoko duen entitate bakoitzeko (hau da, SPRI taldea osatzen duten sozietateak, eta, aurrerantzean, “**Zerbitzuaren Entitate Hartzaileak**”) postu analogoko arduradunari edo solaskideari laguntza emateko, enpresa kontratistak behar horiek bete beharko ditu. Horretarako, gutxienez, profesional tekniko batek aldizka aurrez aurreko bisita egin beharko du zerbitzuaren entitate hartzaileen instalazioetara, eta, halaber, neurketa higienikoak, ergonolikoak eta psikosozialak egiteaz gain, aholkularitza eskainiko die zerbitzuaren entitate hartzaileetako ordezkari-organoei, bereziki Segurtasun eta Laneko Osasuneko Batzordeei.

Orokorrean, gutxienez aurrez aurreko bilera bat egingo dela aurreikusten da hiru hilean behin zerbitzuaren entitate hartzaileekin.

1.2.- Prebentzio-jardueraren plangintza:

- Urteko Programa egitea.
- Urteko Memoria egitea.
- Prebentzio-ereduaren eraginkortasun orokorra baloratzea, bai eta enpresaren sistema orokorrean duen integrazio-maila ere.

1.3.- Laneko segurtasuna:

- Lan-arriskuen ebaluazioa egitea.
- Ekintza zuzentzaileak planifikatzea (prestatzea eta jarraipena egitea)
- Prebentzio-plana egitea.
- Larrialdi-neurrien plana egitea.
- Barne-komunikazioa eta -informazioa ematea.
- Istripuak eta gaixotasun profesionalak ikertzea.
- Enpresa-jarduerak koordinatzea (prozedura kudeatzea, prestatzea edo aldatzea, zerbitzuaren entitate hartzaileei laguntza ematea gaian).
- Banakako babes-ekipoak (informazioa, prestakuntza eta beharrak identifikatzea).

- Neurri zuzentzaileen txosten bat egitea, telelan-erregimenean lan egiteko etxeko baldintzen autoebaluazio-inprimaketatik abiatuta. Autoebaluazio inprimaki hori zerbitzuaren entitate hartzaileek emango dute.

1.4.- Ikuskaritza eta kontrola:

- Ikuskaritza-txostenak.
- Prebentzio-neurrien eraginkortasuna kontrolatzeko txostenak.
- Lan-baldintzen aldizkako kontrolak eta berrikuspenak.
- Prebentzioarekin lotutako materialen (NBEak) erosketaren kontrola.

1.5.- Higiene industrial:

- Arrisku higienikoaren ebaluazioa: zarata, argiztapena, tenperatura, hezetasuna, airearen kalitatea, kutsatzaile kimikoekiko esposizioa.
- Higiene industrialaren arloko ekintza zuzentzaileen programazioa (prestatzea eta jarraipena egitea).
- Arriskuen informazioa.
- Arlo horrekin lotutako gaixotasun profesionalak ikertzea.

1.6.- Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua:

- Arrisku ergonomikoak eta psikosozialak ebaluatzea.
- Ergonomia eta psikosoziologia aplikatuaren arloko ekintza zuzentzaileak programatzea (prestatzea eta jarraipena egitea).
- Arlo horrekin lotutako gaixotasun profesionalak ikertzea.
- Gaiarekin lotuta egon daitezkeen protokoloen inguruan aholkularitza ematea.

1.7.- Autobabeserako plana

Zerbitzuaren entitate hartzaileetako batzuk egoitzen edo lantokien jabeak dira; hortaz, honako hauek dira balizko beharrak:

- Autobabeserako Plan berri bat egitea
- Egungo Autobabeserako Plana berrikustea edo eguneratzea.

Bi kasuetan dagokien dokumentuak erregistratzeko laguntza gehituko da.

Kontratuaren apartatu horri esleitutako aurrekontuaren arabera, Plan berri bat egitea aurreikusten da, bai eta 3 plan berrikustea edo eguneratzea.

1.8.- Prestakuntza-orduak:

Derrigorrezko prestakuntzarako eta prestakuntza gehigarriko dokumentazioa helarazi behar da, azalpenean erabilitako aurkezpena zein horren laburpena duen diptiko/triptiko bat.

Halaber, derrigorrez egin behar diren prestakuntzen ziurtagiria eman beharko da edo bertaratze-ziurtagiri bat derrigorrezkoak ez diren horietarako, eta kontratistak behar bezala sinatu beharko du. Ziurtagiri horiek bereizita emango zaizkie zerbitzuaren entitate hartzaileei eta ziurtagiri bana emango zaio hala eskatzen duen parte-hartzaile bakoitzarentzat.

Prestakuntza arlo bakoitzeko langile espezializatuek emango dute, eta bi hizkuntza ofizialetan eman beharko da.

Prestakuntza guztian aurrez aurre zein online eskuragarri egon beharko dira, eta adjudikatzaileak erabakiko du zein modalitatetan eskainiko diren.

- Derrigorrezko prestakuntza:

Derrigorrezko prestakuntzatzat hartuko da aplikatzekoa den sektoreko legeriaren arabera, kontratuaren aplikazio-eremuan sartzen diren langileei eman behar zaie prestakuntza oro. Prebentzioaren arloko prestakuntza-orduak prestakuntza emango den lekuaren arabera banatuko dira:

- Berriazko prestakuntza-orduak zerbitzuaren entitate hartzaileen lantokietan (aurrez aurre) edo telematikoki.
- Prestakuntza-orduak kontratistaren lantokian prestakuntzaren ezaugarri bereziak direnean eta, hortaz, beste lantoki mota batzuetan eskaini behar denean, betiere zerbitzuaren entitate hartzailea ados badago.

Orokorrean, eta zehatza izan gabe, honako hauek egingo dira:

- Jarrera seguruak areagotzen dituzten prestakuntza-ekintzak lantokian, dauden arriskueta eta hartu beharreko prebentzio- eta babes-neurrietan, lehen sorospena barne.

Prestakuntza-ekintza espezifikoak, dituzten ezaugarriak direla-eta hala behar duten lanpostuetarako.

- Prestakuntza- eta birziklapen-ekintzak Lehen Esku-hartzeko taldeetan. Gutxienez prestakuntza teoriko eta praktiko bana eskaini beharko dira, simulakroa egin aurretik.
- Halaber, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera derrigorrezkoa den prestakuntza oro eskainiko da.

Ekintza horiek guztiak, ahal bada, zerbitzuaren erakunde hartzaileen lokaletan gauzatuko dira.

- Prestakuntza osagarria:

Halaber, lizitatuak bere eskaintzaren esparruan aurretik aipatutako prestakuntzaz gain bestelako prestakuntza eskaini dezake, baina proposatutako prestakuntza hori bi hizkuntza ofizialetan eskaini beharko da.

2. Iteia: osasuna zaintzeko zerbitzua

Bestalde, osasuna zaintzeko zerbitzuaren esparruan SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari honako zerbitzu hauek eskaini beharko zaizkio:

2.1.- Osasunaren zaintzaren plangintza. Gutxienez honako puntu hauek jorratu beharko ditu:

- Osasunaren zaintzaren esparruko plan eta jarduketa-programak diseinatzea, aplikatzea eta koordinatzea.
- Arriskuen identifikazioan, ebaluazioan eta analisisian parte hartzea.
- Lehentasunak ezartzea neurri zuzentzaileak eta prebentzio-neurriak hartzeko, lan-arrisku jakin batzuen eraginpean egoteak osasunean izan ditzakeen ondorioen gainean.
- Behatutako hutsune teknikoak zuzentzeko aholkularitza.
- Langileei informazioa ematea.
- Langileak prestatzea laneko osasunari lotutako gaietan.
- Jarduketan eraginkortasunaren kontrolean parte hartzea.
- Análisi epidemiologikoa.
- Langileek egindako lanaren ondorioz jasandako osasun-kalteak jakinaraztea.

2.2.- Memoriak eta txostenak. Gutxienez honako puntu hauek jorratu beharko ditu:

- Osasuna zaintzeko proiektua.
- Osasuna zaintzeko jardueren urteko programa.
- Mediku-txosten pertsonalak eta pribatuak (konfidentzialtasun handiz).
- Lanpostuari dagozkion lanak egiteko langileen gaitasunaren kalifikazioa.
- Prebentzio-zerbitzuaren osasun-jardueren memoria.

2.3.- Mediku-azterketak. Mediku-azterketak egin beharko dira honako egoera hauetan:

- Hasieran: kontratatu berria den edozein pertsonari.
- Aldian behin: urtero, langile orori.

Era berean, osasuna zaintzeko protokoloetan zehaztuta dagoen aldizkakotasunean:

- Lanpostuetako zereginak edo arriskuak nabarmen aldatzeagatik.
- Lanean berriz hasteagatik, osasun-arrazoien ondorioz luzaro lan egin gabe egon ostean.

Halaber, mediku-azterketak honako egoera hauetan egingo dira:

- Lantoki bakoitzera lagin-poteak bidaltzea, kostu gehigarririk gabe.
- Mediku-azterketen emaitza astebeteko epean jakinaraziko da.
- Emaitzen txostenarekin batera, lortutako emaitzen arabera hobetu daitezkeen eremuak hobetzeko gomendioak jasotzen dituen eranskin bat gehituko da.
- Hitzordua aldatu behar izatekotan, hitzordu berri bat eskaini beharko da astebeteko epean.
- Mediku-azterketak lantoki bakar batean egingo dira, eta lantokietatik hurbilen dagoena izan beharko da.

- Mediku-azterketa guztiak 08:00etatik 09:30ak bitartean egin beharko dira, mediku-azterketaren tipologia gorabehera.
- Aldizkako mediku-azterketen kasuan (analitika zein azterketa osoak), orokorrean, maiatza eta ekaina bitartean egingo dira, betiere zerbitzuaren entitate hartzaileak kontrakoa esaten ez badu. Halaber, hauek ere 08:00etatik 09:30ak bitartean egin beharko dira.
- Hasierako mediku-azterketak, lanean hasi eta astebeteko epean egin beharko dira, zerbitzuaren entitate hartzaileak kontrakoa adierazten badu salbu.
- Mediku-azterketak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan (euskara eta gaztelania) egin ahalko dira, eta emaitza hautatutako hizkuntzan eskainiko da.

Hona hemen mediku-azterketen gutxieneko edukia:

a) Historia kliniko-laborala:

- Lan-anamnesia, non honako hauek jasota utziko diren: lanpostuaren deskribapen xehatua, bertan emandako denbora, lanpostuaren baldintzen analisisan detektatutako arriskuak eta hartuta prebentzio-neurriak.
- Anamnesi pertsonala.

b) Azterketa fisikoa:

- Azterketa fisiko neurologikoa.
- Azterketa fisiko kardiopulmonarra.
- Azterketa fisiko abdominala.
- Azterketa fisiko osteoartikularra, etab.

c) Azterketa osagarriak:

- Ikusmena kontrolatzea, begiko tentsioa barne.
- Otoskopia.
- Audiometria kabina homologatuan.
- Elektrokardiograma.
- Espirometria.
- Odol- eta gernu-analisia:
- Hemograma eta sedimentazio globularraren abiadura
- Odol-biokimika: kreatinina, glukosa, guztizko kolesterola, HDL eta LDL, triglizeridoak, azido urikoa, GOT, GPT eta GGT (entzima hepatikoak)
- Gernu-analisia: ezohikoak eta sedimentua.

Mediku-azterketa orokorren prezioaren barruan, gutxienez, honako proba analitiko hauek sartzen dira:

Hematologia:

- Hematiak
- Leukozitoak
- Hemoglobina
- Hematokritoak

- Batez besteko bolumen korpuskularra
- Batez besteko hemoglobina korpuskularra
- Batez besteko hemoglobina korpuskularraren kontzentrazioa
- Eritrozito-banaketaren esparrua
- Plaketak
- Batez besteko bolumen plakearra
- Linfozitoak
- Neutrofiloak
- Monozitoak
- Eosinofiloak
- Basofiloak
- Eritroblastoak

Abiadura:

- SGA

Biokimica:

- Glukosa
- Kreatinina
- Iragazki glomerularra (zenbatetsia)
- Urea
- Guztizko kolesterola
- Azido urikoa
- GOT
- GPT
- GGT
- HDL kolesterola
- Triglizeridoak
- LDL kolesterola
- VLDL kolesterola
- LDL ez den kolesterola
- Arrisku aterogenikoa
- Sideremia
- Saturazio-indizea
- Burdina
- Transferrina
- I.S. Transferrina
- D bitamina (25-OH)

Markagailuak:

- Guztizko PSA

- Ferritina (seruma)
- T3 askea serumean
- THS Irma serumean
- T4 askea serumean
- Ca 19.9 (markagailu tumorala) serumean
- Antigeno kartzinoenbrionarioa
- Ca125 markagailu tumorala
- Ca 15.3 markagailu tumorala

Gernua:

- Dentsitatea
- pHa
- Proteinak
- Glukosa
- Gorputz zetonikoak
- Bilirrubina
- Hematiak
- Nitritoak
- Urobilinogenoa
- Leukozitoak
- Sedimentua

2.4.- Gripearean aurkako txertoa

Halaber, zerbitzuaren erakunde hartzaileek langileei gripearean aurkako txertoa jartzeko aukera eskaintzen diete, eta langileek aukera izango dute zerbitzu hori erabiltzeko, nahi izanez gero. Zerbitzu horretarako, kostu-eskaintza bat aurkeztu beharko da.

Txertoa erreferentzia-zentrotzat hartzen den osasuna zaintzeko zerbitzuaren lantokian jarriko da, lantokitik hurbilen dagoena baita.